



2018- 2019
IKASTURTEA

LEHEN HEZKUNTZA
1. MAILA

Agur, guraso horiek

Urtero, ikasturte hasieran egiten dugun bezala, ikasturtearen txostenaren bidez gure antolamenduaren berri eman nahi dizuegu. Dena den, laster zuekin izango dugun bileran zenbait alderdi zehaztu eta zuen zalantzak argitzen saiatuko gara.

2018-19 IKASTURTEA

2 -AURKEZPENA

Aurten gure maila 49 hurrez osaturik dago.

TUTORAK

2.A CECILIA

2.B IXIAR

Tutoreekin Hizkuntza, Matematika, Ingurune, Plastika, Tutoretza eta Informatika landuko dute.

ESPEZIALISTAK

gorputz hezkuntza **Iñaki**

Musika **Edurne**

Ingelera **Yolanda**

3-JARRERAK ETA OHITURAK

Ohiturak eta jarrera egokiak ezinbestekoa dira lana gustura egin ahal izateko. Beraz horretan jarriko dugu indarra:

- ENTZUTEARI eta era lasaian parte hartzeari.
- ERRESPETOARI, irakasle eta lagunak errespetatzea, laguntzea, besteen lekuan jartzea...
- Lan egiteko momentuak eta jolasteko momentuak BEREIZTEA.
- Beraien ARDUREN JABE izatea, gure laguntzarekin.

Gelan giro ona eta lasaia lortuz gero, gainontzeko guztia askoz ere gusturago egingo dugu.

Aurrekoarekin lotuta

4-ZER EGIN BEHAR DU 7 URTEKO HAUR BATEK?

- Bere motxila prestatu: hamaiketakoa, Gorputz Hezkuntzako arropa, eskatutako materiala, informazioa... (hasieran gogoratu)
- Etixerako lanak egiten arduratzea.
- Bere gauzak eta materiala zaindu eta jaso.
- Lokarriak lotu.

5-ETXERAKO LANAK

Etixerako lanen helburua ardurak eta lan ohiturak garatzea izango litzateke.

Etixerako lanak egitea beraiei badagokie ere, zuek egin beharra baduzue:

- Ordutegi bat ezarri.
- Bere lanei gain begirada bat eman orientabideak emanaz.
- Egindako lana eta ahalegina goraiatu, emaitzetan bakarrik erreparatu gabe.
- Kontrolatu zuen eskaera maila. Umeari egokitu.
- Zuen seme-alaba animatu: SAIA ZAITEZ, LORTUKO DUZU ETA!

6-HELBURUAK

- Helburu akademikorik garrantzitsuenak Hizkuntza eta Matematika arloei dagozkie, gainontzeko arloen tresnak ere direlako.
- ERRESPETOA bai beraien arteko harremanetan baita gainontzeko pertsonetikiko.

7-AHOZKO HIZKUNTZA

- Ahozko hizkuntza aberastu, hiztegia zabaldu eta akatsak zuzendu.
- Fonemak ondo ahoskatu.
- Euskararen erabilera indartu eta gelatik kanpo erabili. Horretarako zuen kolaborazioa ezinbestekoa da.

8-AHOZKO HIZKUNTZA- ERRUTINAK

Arlo eta ordu guztietan lantzen bada ere, goizeko lehenengo saioetan, lantzen dugu bereziki . Gelako ardurak ordu honetan egiten ditugu.

Hiru ardura dituzte :

Menuan, jangelako eguneko menua irakurri, idatzi ordenadorez eta besteei azaldu behar diete.

Eguraldian, data, tenperatura (grafika), zerua landuko ditugu.

laz bezala ardura bakoitza bi haurrek eramaten dute aste osoan zehar.

Lana bukatzen dutenean besteei azaltzen diete.

Bitartean besteek zer egingo dute? Lan mekaniko batzuk egingo dituzte: matematika, irakurketa eta idazketa

9-AHOZKO HIZKUNTZA- ERRUTINAK

Honetaz gain aurten ardura berri bat dugu: **Kontakizunak**.

Beranduago hasiko gara baina ardura hau tokatzen zaien bi haurrek, txartel bat eramango dute etxera, zuek jakin dezazuen, eta haiekin batera lagunei kontatzeko zerbait prestatu (errezeta, txistea, ipuina, olerkia...). Ahoz azaldu beharko dute, beraz etxean entseguak egin beharko dituzte.

Hau, erraza badirudi ere, zaila egiten zaie eta hor helduek (guraso, irakasleek) oso lan inportantea dugu egiteko.

Ahazkotasunaz gain, lotsak eta beldurrak gainditzeko, oso ona izaten da.

10- IDAZKETA-

Idazketan 2. mailan, testu mota desberdinak idazten jarraituko dute: oharrak, ipuinak, olerkiak, azalpen testuak...

Eta gauza hauetan jarriko dugu indarra:

- Hitzen arteko banaketa egokia.
- Testuak motzak edo luzeak , zentzuzkoak eta argiak izatea
- Esaldiaren bukaeran puntua jartzea, puntu eta gero lehenengo hizkia larriz idazten... eta baita izen propioetan ere
- Letra xehez idazten hasiko dira eta hizkien arteko lotura landuko dugu.

Idazketa ez da hasten paperean, buruan baizik ...

11-IRAKURKETA

Irakurketa: Hau landuko dugu:

- Abiadura , ahoskera eta erritmoa hobetzea puntu eta komen ondorengo geldialdiak errespetatuz.
- Ulermena landu.
- Irakurtzeko ohitura eta interesa sustatu (eskolan/etxean).
- Nahiz eta irakurtzen jakin, ahal baduzue konpartitu momentu hori beraiekin.
- Irakurketa mekanika eta gozamina ez dira berdin lantzen.

Lagundu disfrutatzen liburuekin eta animatu irakurtzera.

Ez planteatu irakurketa obligazio moduan.

Lagundu irakurketetan gauza gozagarri eta interesgarriak aurkitzen.

12-MATEMATIKA

Matematikan liburuko lanarekin batera, tartekatuz bizitzarekin lotura zuzena duten zenbait ekintza egingo ditugu: prezioak, distantziak, ordutegiak, altuerak...

- Irakurri, idatzi, konparatu eta ordenatzea 1000 arteko zenbakiak.
- Zenbakiak deskonposaketa eta konposaketa ehuneko, hamarreko eta batekoetan.
- Buruz, gutxi gora beherako kalkuluak egitea.
- Batuketa eta kenketa burukoekin egiten jakitea.
- Denbora, luzera, pisua eta edukiera, tenperatura neurriak ezagutzea.
- Erlojuaren funtzionamendua pixkanaka ezagutu (orduak, erdiak, laurdenak...)
- Problema ebazten jakitea beraien errekurtsioak erabiliz eta ahoz azaltzea.
- Zenbait datuak izanik problema asmatzen jakitea.
- Irudi eta gorputz geometriko batzuk ezagutu.

13-INGURUNEA

Arlo honetan gai ezberdinak landuko ditugu: Lizarra-mahatsa, Gabonak Euskal Herrian, mitologia,...

Lana, askotan, binaka eta taldeka egingo dute , norberaren partaidetza eta honek lanaren mailan duen garrantziaz jabetzeko.

INFORMATIKA

Aurten informatika gelara joango gara. Ordenagailu txikiak ere erabiliko ditugu gelan. Hau landuko dugu:

- Word lehenengo hastapenak (testuak idatzi, itsatsi, gorde...)
- Hizkuntza eta matematika jolasak.

14-PLASTIKA

Lehen hezkuntza osoan teknika ezberdinak landuko ditugu: josketa, modelaketa, margoketa, collageak, eraikuntzak...

Mantala edo kamiseta zahar bat bidaltzea komenigarria izango litzateke arropa ez zikintzeko. (IZENA IDATZITA)

Plastika saioetan 2 taldeko haurrak nahasiko ditugu.

Ikasturtean zehar taldekatze ezberdinak egingo ditugu beraien arteko funtzionatzeko era eta gora beherak ikusi ahal izateko.

Honek pista emango digu 3. mailarako behin betiko talde berriak egiteko orduan.

15-TALDEKATZE BERRIA

Bi urtetik 6. Maila artean bi aldiz egiten dira taldekatze berriak; bat haur hezkuntzan eta bestea 3. mailara pasatzeko.

Eskolako erabakia da eta positiboa ikusten du ikasleei aukera ematen dielako beste kide batzuekin harremanak zabaltzeko eta lan egiteko.

16-EBALUAZIOA

Ebaluazioa etengabea eta pertsonalizatua da. Edukien lorpena, lana eta eguneroko esfortzua, lan-ohiturak, txukuntasuna eta errespetua.

17-MAILAZ IGAROTZEA

3. mailara pasatzeko gutxieneko batzuk gainditu beharko dituzte.

Hizkuntzari garrantzi berezia emango zaio, eragina zuzena duelako beste arlo guztien garapena egokian.

Irakasle-taldeak erabakitzen du ikasleek mailaz igaroko duten ala ez.

18-HARREMANAK GURASOEKIN

- Ikasturte hasieran orokorra guraso guztiekin.
- Urtarrila otsaila aldera bakarkakoa guraso guztiekin.
- Txostena idatzia hiruhilekoan behin banatuko zaizue
- Premiazko bilerak beharrezkoak direnean(aldez aurretik eguna eta ordua adostuz).

19-IRTEERAK

- . **Listorreta:** irailan.
- . **Xoxolurra:** edozein momentuan
- . **Lizarra:** urriak 4 eta 5.
- . **Zinema euskaraz:**
- . **Hondartza:** maiatzean/ekainean
- . **Igerilekua:** irailak 24 urriak 24.
- . **Arramendi:** irailean

24-OHARRAK

- **Garaiz etortzea ezinbestekoa da;** orduz kanpo etorriz gero, atezainari esan eta, bera ez balego, zuzendaritzako norbaiti.
- Etxeko jostailurik eta eskolako materialik **ez da ekarri behar.** Eskolako materiala ere ez da beharrezkoa.
- **Arropan izena jarri.**
- Asteazkenean fruta eta ostegunean ogitarteko.
- Urtebetetzeak: gonbidapenik eskolan ez banatu.